Gipuzkoako Tolosatik, 1934 gn'eko, agorraren 19'an.

Pierre Lafitte, apaiz euskaldun jaunari.
Ustaritz.

Ene jauna: Etzaitut aurpegiz ezagutzen, baiñan bai anhitz entzutez eta bai zure "Eskualduna"ko idazlan mamitsu eta bikaiñez ere; eta euskaldunok elkarrekin dugun senidegoak artarako bide emanik natorkizu mesede baten eske.

Irigarai sendakin garteak esanik dakit badezuela or, Ustaritzen edo beste nunbait, Joanategi benedictanoak egindako "San Benoaten Bizitza" salgai. Sei lagunek egin zaigu liburutxo polit orren kutizia; eta naiko genuke seiok bana izan lenbailen. Igor iztiguzu beraz sei, alik lasterren, zer balio dutenaren agiriarekin; eta pagatuko dizkizut berela Mandat Poste, naiz beste zuk naiagoko zenukeen bidez.

Eldu den larunbataz gero Iruñan (Colegio de Escuelas Pías, Apartado 42, Pamplona) izango nauzu; bitartean emen (Tolosa, Librería Católica, Guipúzcoa). Nora ta nora liburuak bidali, zerorrek ikusiko duzu beraz.

Aldeaurrez esker beroak emanez, eta nere adiskidantza gogoz eskaiñiz, agur egiten dizu, JKS-pean zerbitzari apal duzuna

Mokorroa'tar Justomari
Apaiza

MOKAROA

Colegio de los PP. Escolapios. Casilla 3903. SANTIAGO

CHILI

*Justo M.ª Mocoroa Mujica* -k
*Escolapio*

P.Lafitte apaiz jaunari
biotz biotzez agur.

Ez dakit oroitzen ote zeran nizaz, nere liburu batez bezela; Frantzia-ra sartu berri artan agertu bat egin banizun ere Ustaritz-eko Semenario ~~ha~~ tipian, orain amabi urte t'erdi.

Nolanai den, nik beti gogoan zaitut zu, euskeralariri bikain eta bizkorrenen artean; eta ez det uste nabarmenegi iritziko diozun nere ausardiari, oraingo beste lan apur au zuri igor-

tzea buruak eman badit.

Ba dakit, aoan bizarrik gabe esan dizkigutzula egiak mendiz beste aldeko idazle askori; eta zuzenaren aldekoa zerala dudarik gabe, iñoiz zertanbait utsegitea gertatu zaizun-arren. ("Orixe" ezagutzen degunok ezpaititzakegu ontzat eman, "Gernika"tik gizagajo ari ezarri ziñizkion zenbait garrazkeri).

Orregatik iruditu zait nere itzulpen berri au zuri erakustea; nere ustez argi ta samur dagoana zu bezelakoentzat illun eta idor balego, beste bideren batetik jokatzen saia aal nadin.

Itz labur bat edo biez zere iritzia agertu nai bazenit, eskerrik bizi ta beroenak zorko lizkizuke,

Jainkoa baitan zure adiskide

IBAR-ek

+

COLEGIO DE PADRES ESCOLAPIOS
PLAZA DE LAS ESCUELAS PIAS
TOLOSA (GUIPUZCOA)

M. l'abbé Pierre Lafitte
Au Petit Séminaire
Ustaritz
(B.-P.)

1954-gn. urteko garagarrillaren 30-ean.

Ene jaun eta adiskidea,

Bizi diranak agertzen, nunbait; eta emen nazu berriz ere ustekabean, aspaldiko partez. Badakit zu ere etzaudela nitaz āzturik; ezpaitaukat beraz lēna berritzen ari bearrik, nere asmoak eta gogoetak nundik-nora dabiltzan adierazteko. "Lēngo lepotik burua", esan oi da gure artean; eta onezkero ala bearko ere du, arnasa degun artean. Jauna lagun dakigula azkenera arte!

Nere adiskide bik zurekin eta Étienne Salaberry apaiz jaunarekin itzegin nai lukete datorren uztaillaren erditsutan. Premia aundiko eginkizunaren berri eman didate, eta zuengana igortzea iru-

ditu zait, iritzi eta argi eske. Naiko dituzue errezibitu? Premia aundiko egiñkizuna dala diot, berriz ere; eta zuek beralako apaiz frantses-euskaldun burutsuek aintzakotzat artzea merezi duena. Baietz esango diot?

Jardets ezaidazu, arren, *alik lasterren*,

1º. Uztaillaren erditsutako *zein egun* izango litzaken egokiena, naiz zuretzat, naiz biontzat?

2º. *Nun* biltzea naiko zenuken nere adiskide oekin, Uztaritzen, ala Baionan?

3º. Baionan izatez-geroz, *zein tokitan* billatu bearko ziñuzkete?

Ez daukazu gutun luzea egiten ari bearrik erantzuteko; aski dezu txartel tipi bat, itz-erdizka esanez jakiteko larri gerana.

Zure adiskide ta Jainkoa baitan lagun

Justo Mari Mocoroa

Bilbao-tik, 1961-eko martxoaren 14-gn.

M.l'abbé P.Lafitte
HERRIA
8,Rue Jacques-Lafitte
Bayonne

Ene adiskidea,

Duela zenbait denbora, Tolosa-ko lagun on bat agindurik utzi nuen, zortzireun libera ttipi igortzeko zueri ene izenean, Oxobi apez zenaren liburuarentzat.

Eztakit eskuratua duzunz diru hori, ala oraino bidean den; bainan horra adierazi zertako igorri nizun. Nagi ibili banaiz-ere, agian ezta berantegi izanen.

Heldu den 22-an dugu gure Aguirre zenaren urthe-muga: bethi gogoan dugun gizon paregabearena. Lerro goxo batzu eskaini nahi niozkan, adiskideen artean hedatzeko potretaren azpian; bainan beldur gira eztiren tenorez ikusiko argitan. Hor ditutzu behintzat beren aphurrean.

Aspaldiko partez ene goraintzi hoberenakin,

Justo Mª Mocoroa